

GIDA DIDAKTIKOA


**IRAKASLEENTZAKO
OHARRA**





AURKIBIDEA

Irakasleentzako oharra.....	3
Nola erabili hezitzaileentzako gida.....	3
Gaiak.....	5
Glosategia.....	9
Bibliografia.....	11





IRAKASLEENTZAKO OHARRA

Aurkezten ditugun ibilbideetan ideia batzuk ere proposatzen ditugu, hezitzaile eta Bigarren Hezkuntzako irakasleei laguntzeko asmoz, Euskal Herriko espazio publikoan ezarritako eskultura inportanteenetako batzuk ikasleekin batera azter eta iker ditzaten.

Gida honetan, arte publikoaren inguruan sortzen diren arazo eta gai batzuei heltzen diegu, betiere Bigarren Hezkuntzako curriculumaren, hain zehatz plastika eta ikusi-hezkuntzaren nondik norakoak eta nolakoak aintzat hartuta.

Izan ere, gidaren asmoa ez da mugatzen artelanak aztertzeraz; eskulturak eta haiei buruzko informazioa ikasgelako eduki eta trebezia askoren baitan txerta daitezkeela ere erakutsi nahi du.

Ikasleak arte publikoaren eta kulturaren inguruan dabiltzan ideien munduan murgildu ahal izatea da xedea. Adibidez, arte-baliabide eta estiloak eta espazio publikoan eragiteko modu ugariak alderatzean, ikasleek behatzeko, interpretatzeko eta eztabaidatzeko gaitasunak gara ditzakete, arte-hezkuntzaren programa batean, garatu ere.

NOLA ERABILI HEZITZAILEENTZAKO GIDA

Aurkezten ditugun bost proposamen didaktikoak ibilbideetan proposatutako eskulturen bisitak bertan egin aurretik edo ondoren jorra daitezke.

Aurretik landutakoek lagunduko dute eskulturen egileen zereginaren kontzeptu erabilgarriak ulertzen. Hartara, webean jarri dugu ibilbideetako eskulturei buruzko informazioa, bai eta egileen biografiak ere.

Bestetik, jarduera-proposamen batzuk, bisitaldiak iraun bitartean edo ondoren egiteko pentsatuak daude. Halakoetan, bisitaldiak lehenago egitea gomendatzen dugu. Bisita egin nahi izatera, webgunean aurkituko duzue proposatzen dugun ibilbideari buruzko informazioa.

Gidek ibilbide banaren eskulturen berri ematen dute, eta eskultura publikoari buruzko hainbat gai eta ikaspenen inguruko baliabideak eskaintzen dituzte.

Jarduerak ere ibilbide bakoitzean jorratzen diren elementu klabeen arabera banatu dira ikasgaietan. Jarduera bakoitza egile bakar bati edo gehiagori dagokie: halakoetan, espazio publikoan lan egiteko era desberdinak alderatu nahi dira.

Hautatutako gaiaren izaeraren arabera, ikasgai bakoitzean konbinatu dira, batetik, dimentsio kritiko edo erantzunezkoa, berez ulermen estetikoari lotua;



bestetik, dimentsio produktiboa, biak ala biak baitira aktibitate artistikoaren ezaugarri.

Interpretatzeko prozesua erraztearren eta eztabaidak piztu nahian, webgunean dauden testu, irudi eta bideoetan oinarritutako galderak proposatu dira. Testuzko eta irudizko informazioaren arteko loturak egitea eta espazio publikoko eskulturak egituratzen dituzten osagaiei buruzko azterketak egitea da asmoa.

Eskuz lan egiteko trebeziari lotutako ariketak ditu ikasgai bakoitzak; hartara, eta sintesi modura, aztertutako gaiaren inguruan ikasitakoa praktikan jar dezatela eskatzen zaie ikasleei.

- Irudiak

Gida honetako galdera, eztabaida eta jarduera guztiak webguneko irudietan oinarritzen dira. Mesedez, azter itzazue xehero ikasleei erakutsi baino lehen. Ikasgelan ordenagailua badago, erabili ahal izango da, hobeto kanoi batez proiektatua bada. Edonola ere, irudiak inprima ditzakezue, eta ikasleen artean banatu.

- Jarduerak

Proposatzen ditugun jarduerekin, ikasleen beren esperientzien eta gidako ikasgaiaren aurkeztutako kontzeptuen arteko loturak ezarri nahi ditugu. Jardueron bidez, eztabaidetarako hizkera bat gara dezakete. Askatasun osoa duzu jarduerak ikasleen interes eta trebeziara moldatzeko. Gida honetako materialek artista edo mugimendu zehatzetan ikerketa sakona bideratzeko modua ere eskaintzen dute. Sustatzaileek eta artistek zenbait gai iradoki dute, eta zuek ere berdin egin dezazuen animatzen zaituztegu.

- Bibliografia eta bestelako baliabideak

Lanen eztabaida eta zabalpenerako planteatzen ditugun gaiekin batera, bibliografia osagarri bat ere gehitu da, ibilbide bakoitzaren gaien arabera hautatua.





- Glosategia

Eskultura publikoaren historiari buruzko hitzak jasotzen ditu. Gehienak ezagunak dira, eta hemen azaltzen ez direnak ere gehi daitezke zerrendan. Esan ikasleei entziklopedietan eta hiztegietan bilatzeko. Glosategia osatzea jarduera emankorra izan daiteke.

Gaiak.

Iradokitzen dizkizuegun proposamenak eta jarduerak guztiz malguak dira, eta ez dago eragozpenik batere zeuen inguruabarretara molda ditzazuen.

Emaiezu ikasleei eskulturekin harreman zuzena izateko aukera. Eskulturari zuzenean erreparatzeko esperientzia izango zaie baliabiderik aberasgarriena, pertzepziorako gaitasuna areagotzen diena. Ibilbideetan barrena zentzumenen bidezko paseoek hainbat ariketa egiteko moduan jarriko zaituztete: marraztu, argazkiak egin, oharrak idatzi, usaindu, begiratu, ukitu, eta abar.

Jarduerak bi taldetan sailkatu ditugu:

Dimentsio kritikoa. Interpretazioa: Eskulturei erreparatzeko eta baloratzeko jarduerak dira. Irizpideak argitzeko eta balorazioak egiteko oinarriak eraikitzea dute helburu.

Dimentsio produktiboa. Eskultura egiteko behar beste prozesu tekniko, material eta abar barnera dezaten bilatzen da jardueron bitartez.

Hona hemen ibilbide bakoitzean jorratuko diren gaien aurkibidea.

JARDUERAK	GAIAK	EGILEAK
<u>TOLOSA</u>		
1. Jarduera.	Eskulturen sustapena.	TEE
2. Jarduera.	Arte-hizkerak modernizatzea.	RICARDO UGARTE. <i>OROIMENAREN GAZTELUA</i>

3. Jarduera.	Lanabesak eta gizakia. Funtzio nortasun-emailea. Sinbolizatze-prozesua.	NESTOR BASTERRETXEA. <i>GOLDEA</i>
4. Jarduera.	Zezenak eta inauteriak irudikatzea.	TOMAS HERNANDEZ. <i>ZEZEN PLAZAREN MENDEURRENA.</i>
5. Jarduera.	Arte Zinetikoa. Kirol arloko erreferenteak. Interpretazio-prozesua. Arte publikoaren eta herritarren arteko harremana.	JOSE RAMON ANDA. <i>HAIZEAN.</i>
6. Jarduera.	Zentzumenen bidezko paseo bat.	EDUARDO CHILLIDA. JORGE OTEIZA.
<u>BILBO</u>		
1. Jarduera.	Positiboa eta negatiboa, masa eta lerroa.	CASTO SOLANO. <i>MONUMENTUA RUBIALI.</i>
2. Jarduera	Eskultura publiko bat egiteko prozesua.	ZUGASTI. <i>NORA EZEAN.</i>
3. Jarduera	Neoespresionismoa. Gorputza eta identitatea.	MARKUS LÜPERTZ. <i>JUDITH.</i>
4. Jarduera	Interpretaziorako haria: izenburua.	LOUISE BOURGEOIS. <i>AMA.</i>
5. Jarduera	Artelanaren eta ikuslearen arteko harremana. Minimal. Zentzumenen bidezko paseo bat.	ULRICH RÜCKRIEM. T.G.
6. Jarduera	Kontsumoaren kultura eta arteak.	JEFF KOONS. <i>PUPPY.</i>
7. Jarduera	Azterketa konparatiboa: Koons eta Garraza.	ANGEL GARRAZA. <i>TOKIAK ETA LEKUAK.</i>

<u>GASTEIZ</u>		
1. Jarduera	Hiria eta gorputza.	MIQUEL NAVARRO.
2. Jarduera	Espazioaren mugak.	EDUARDO CHILLIDA. <i>FORUEN OMENALDIA.</i>
3. Jarduera	Materiala.	AGUSTIN IBARROLA. <i>SOINEZ SOIN.</i>
4. Jarduera	Oteiza, espazioaren eskultorea.	JORGE OTEIZA.
<u>DONOSTIA</u>		
1. Jarduera	Zergatik eta nola aldatzen den artea.	JORGE OTEIZA. <i>PIETATEA.</i>
1.1 Jarduera	Espazioaren kontzepzioak.	
2. Jarduera	Oteizaren espazio hutsa:	OTEIZA ETA CHILLIDA, ESPAZIOAREN ESKULTOREAK.
2.1 Jarduera	<i>Eraikin hutsa.</i>	
3. Jarduera	Chillidaren “tarte” espazioa. <i>Haizearen orrazia.</i>	REMIGIO MENDIBURU. <i>HERRI TXISTU HOTSA.</i>
<u>GERNIKA</u>		
1. Jarduera	Nola sustatzen den eskultura bat.	GERNIKAKO ESKULTUREN SUSTAPENA.
2. Jarduera	Hizkera artistikoak modernizatzea: “Land art”.	AGUSTIN IBARROLA. <i>BASO ANIMATUA.</i>
2.1. Jarduera	Konposizioa: elementua, unitatea eta errepikapena. Espazioarekiko harremanak eta esanahiak.	
2.2 Jarduera	Forma, espazioa, eskala.	

2.3. Jarduera	Material berriak, artea eta natura.	
3. Jarduera	Eskulturaren funtzio sinbolikoa: sinbolizatzeprosesuak. Gernika: etxe bat eta aterpe bat: Moore eta Chillida, bakearen alde	CHILLIDA. <i>GURE AITAREN ETXEA.</i>
4. Jarduera	Sinbolizatzeprosesuak eta erreferenteak. Marraztea, artelanen deskribapenetatik abiatuta.	HENRY MOORE. <i>FIGURA HANDIA ATERPEAN.</i>



Glosategia.

abstrakzioa: figurazioan, hots, kanpoko zein naturako errealitatean oinarritu gabeko artea sortzeko prozesua.

abangoardia: ekinbide edota tekniketari, arteetan bereziki, talde berritzaileei aplikatzen zaie.

arlekina: maskaraz eta janzkera koloretsuaz irudikatu ohi den pailazoa.

betea: edukitzaile edo ontzi bat eduki batek okupatuta dagoenean esaten da.

ehundura: zerbait ukitzeak sortzen duen sentipena.

errepresentazioa: zerbaiten edo norbaiten irudikapena.

eskala: zerbaiten tamaina edota beste elementu batekiko agertzen den erlazioa. Era berean, gauza, kolore edo bestelako multzo bat, multzo horretako osagai guztiek partekatzen duten ezaugarri edo itxura baten arabera ordenaturikoa (eskala metrikoa, musikala...) adierazten du.

espazioa: gorputzak eta beren arteko tartekak dauden tokiko magnitudea.

estaldura: egitura metaliko bat gaineztatzeko erabiltzen den azalera metalikoa.

eskultura zinetikoa: mugimenduaren meneko artea.

Espresionismoa: eskola edo korrante estetikoa, zeinak forma eta orekaren bidez lortutako espresioaren intentsitatean oinarritzen den. Inpresionismoarekin kontrajarrian sortu zen.

estiloa: artista batek adierazteko duen berezko era.

fatxada: eraikin baten azalera, kanpoaldea.

forma: objektu baten eite edo egitura.

figurazioa: gizakiaren edo naturaren irudiak arte-eredu gisa erabiltzen dituen korrante artistiko zabala. XX. mendeko abangoardiak jaio arte, mendebaldeko artearen oinarria izan da.

formala: formari dagokiona.

geometrikoa: geometrian erabili ohi diren lerro zuzen edo kurbo edo zifren erabilera, edo haien antzera egindakoa.

herri-kultura: zenbait adierazpen, irudi, objektu eta informazio, erraz antzeman daitezkeena eta gaur egungo gizartean pertsona ugari erabiltzen dutenak.

hormigoia: eraikuntzan erabiltzen den harri xehe, hondar eta zementuz egindako nahastea; Chillidak eskala handiko zenbait lanetan erabiltzen du, grabitateari erronka eginez.

hutsunea: materiari ez dagoen espazioa izaten da.

identitatea: norberaren ezaugarrien multzoa.

in situ: jatorrizko eran edo tokian dagoena.



klasikoa: Antzinaroko Grezia edo Erromari dagokiona, bereziki artean, arkitekturan edo literaturan.

konposizioa: artelan baten barruan elementuak kokatzeko era.

kontsumismoa: manufakturatutako produktuak erosteko grina eta joera.

korten altzairua: Altzairuzko xafla, azala herdoiltzen denean korrosioari barrurantz joaten uzten ez diona. Itsasontziak eraikitzeke erabiltzen da.

labirintoa: Elkar gurutzatzen diren bidez betetako lekua. Izena Kretako labirinto ospetsutik dator, eta batzuetan parke eta lorategietan eraikitzen da halakorik.

Manierismoa: XVI. mendean Italian sortu eta Europa osora zabaldu zen estilo artistikoa. Ezaugarriak: gorputzen estilizazioa, fantasiarako joera, dinamismo handia, argi-kontrastea, eta abar. Estilo artifiziala, gehiegikeriari, kontrasteari, bitxikeriari eta sofistizioari garrantzia ematen ziona.

materia: orokorrean, beste batzuetatik bereiz daitekeen edozein substantzia.

materiala: zerbait egiteko balio duen elementu edo gaia.

Minotauro: greziar mitologia klasikoko munstroa, erdi gizon eta erdi zezen dena.

muga: bi gauzaren arteko banaketa fisiko nahiz immateriala adierazten duen lerro, puntu edo unea.

Pop artea: 50.eko hamarkadaren bukaeran eta 60koaren hasieran sortutako estiloa, gaiak eta teknikak publizitate, telebista eta egunkarietatik atera zituena. Pop irudiak, ironiaz eta irudimenez beteak, herri-kulturaren omenaldizat edota, aldiz, kritikatzat har daitezke. Mugimendu hau batez ere Britainia Handian eta Estatu Batuetan nagusitu zen.

proportzioa: parteek beren artean edo osotasunarekiko duten harreman armoniatsua.

sinboloa: beste gauza bat, bai grafikoki bai hitzez, irudikatzen edo esan nahi duen zerbait.

tamaina: objektu baten neurri naturalen guztizkoa hartuta lortzen den emaitza, magnitudea.

teknika: artelanak egiteko materialak lantzeko metodoa.

zirriborroa: marrazki, pintura edo eskultura egin aurretik saiakuntza gisa egiten den marrazkia.





OINARRIZKO BIBLIOGRAFIA

Aguirre, I. (1998a): "Zer da eskultura? (I, II,III)", in *Hik Hasi*, 26, 27, 28.

Aguirre, I. (1994). "La caja y la casa: De Oteiza y Chillida como escultores del espacio", in *Bitarte*, 3.

Arnaiz, A; Elorriaga, X; Laka, X y Moreno, X. (2001): *De modernidades y de oportunidades: La escultura pública en el País Vasco. Cimal*.

Blanco, P; Carrillo, J; Claramente, J; Marcelo Expósito (edit) (2001): *Modos de Hacer: Arte crítico, esfera pública y acción directa*. Salamanca: Universidad de Salamanca.

Calaf, R. (2003): "Aprender arte en la ciudad: Sensibilizar hacia el respeto y la valoración del patrimonio urbano", in Calaf (koord.): *Arte para todos: Miradas para enseñar y aprender el patrimonio*. Gijón. Trea.

Gorriarán, C. (1994): "Arte y los artistas vascos de 1966 a 1993", in *Los vascos*. Arte, V. Donostia. Lur.

Gurpegui, M. (2007): *Esculturas para el pueblo: Muestra Permanente de Escultura Vasca Contemporánea de Tolosa*. Tolosa. CIT.

Maderuelo, J. (2001): "El arte de hacer ciudad", in Maderuelo, J. (Ed): *Arte público: naturaleza y ciudad*. Lanzarote, Fundación César Manrique.

Sobrino, M.L. (1999): *Escultura contemporánea en el espacio urbano*. Electa.

Zenbait egile (2002): *Esculturas en espacios públicos de Vitoria-Gasteiz*. Gasteiz. Vitoria-Gasteizko Udala.

